

3. Laborategia

Hurrengo enuntziatuei dagozkien fluxu-diagrama egin eta Visual Basic-en kodea idatzi:

1. Pantailan ondorengo sekuentziak idazten dituzten programak idatzi:
 - a) 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10
 - b) 2, 4, 6, 8, 10
 - c) 1, 3, 5, 7, 9
2. **N** zenbaki osoa irakurri ondoren, **1 + 2 + 3 + ... + N** kalkulatzeko programa egin.
3. **i** eta **j** zenbaki osoa irakurrita, **i + (i+1) + (i+2) + ... + j** kalkulatu
4. Zenbaki errealeen sekuentzia bateko elementu guztien batura lortzen duen programa egin. Hasieran sekuentziaren luzera emango da.

Adib: Luzera : 3

5.2

3.6

-2.5

Emaitza: 6.3

5. Zenbaki osoen sekuentzia bateko elementu positibo guztien batura lortzeko programa egin. Hasieran sekuentziaren luzera emango da.

Adib: Luzera : 4

5

6

-2

7

Emaitza: 22

6. **N** zenbaki oso bat irakurrita, bere faktoriala kalkulatzeko programa egin:

$$N! = 1 * 2 * 3 * \dots * N$$

Probatu ondoko datuekin emaitzak zuzenak direla:

$$0! = 1$$

$$1! = 1$$

$$4! = 24$$

$$9! = 362880$$